



Cristina Enea Fundazioaren 2024ko udako agenda

Atzo, ekainaren 21a, osteguna, udari hasiera eman zitzaion ipar hemisferioan eta gaur Cristina Enea Fundazioak datozen 3 hilabeteetarako ekimen eta proiektuz betetako agenda aurkeztu du. Aire zabaleko zine-emanaldiak, Cristina Eneako bisita antzeztuak, Urgulleko Natur Txokoko haur-programazioa eta Ulia Interpretazio Zentroko erakusketak eta jarduera autogidatuak jasotzen ditu, besteak beste, gaur aurkezten den agendak.

Donostia, 2024ko ekainaren 21a.- Badatoz urteko egunik luzeenak eta beroenak, eta horiekin batera Cristina Enea Fundazioak 2024ko Udako Jardueren Agenda aurkezten du, eskuragarri dagoeneko www.cristinaenea.eus webgunean (agendaren bertsio murriztua argitaratu dugu, izan ere datozen egunetan udako aire zabaleko zine zikloa eta Urgull mendiko Natur Txokoko egitarau osoa prentsaurrekoan edota prentsa-ohar bidez aurkeztuko dira). Berrogeita hamar bat jarduera, herritarrak naturara eta iraunkortasunera hainbat esparrutatik hurbiltzera gonbidatzeko. Ohiko ekimenez gain (erakusketak, hitzaldiak...), udan Urgulleko Natur Txokoa irekiko dugu berriro, haurrentzako jarduera didaktiko eta ludikoak eskaintzeko. Baina urte sasoi honi gehien lotzen zaion ekimena, zalantzarik gabe, **aire zabaleko zinema zikloa** da, aurten hiriko lau parketan 4 proiektzio programatuko dituen (xehetasun guztiak datorren ekainaren 25ean prentsaurrekoan).

Agendaren hasieran, ekainaren 27an, María Cueto artistaren **Hazi hegalaria** erakusketa inauguratuko da Cristina Enean bertan. Cuetoren unibertso sortzailean murgiltze sakona eskaintzen duen erakusketa da, inspirazio eta adierazpen artistikoaren iturri gisa landare-elementuak, bereziki haziak, erabiltzean oinarritzen dena. Erakusketa honek, gainera, jarduera paralelo batzuk izango ditu, hala nola mahai-inguru bat, bisita gidatuak eta emanaldi artistiko-musikalak. María Cuetok esperientzia luze-zabala du artearen esparruan, eta Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxera ekarriko duen erakusketa honek gure inguruaren edertasuna eta hauskortasuna ikustera gonbidatzen gaitu, bai eta hura babesteko jokatzeko dugun zereginari buruz hausnartzera ere.

Mandasko dukesen bisita antzeztuak

Udako hilabeteetako azken asteburuetan Cristina Eneako bisita antzeztuak izango dira berriz ere. Ekimen honek harrera ezin hobea izan du herritarren artean lehenengo saioetan, eta orain programazio bikoitzarekin itzuliko dira: bi saio izango dira azken larunbatean eta beste bi hileko azken igandean. Antzeppen hauek Mandasko dukesa izandako Cristina Brunetti Gayoso de los Cobosen figura hobeto ezagutzeko balio dute, Josune Gorostegi aktoreak antzeztutako pertsonaia, alegia.

Udako hilabeteek **ON EKIN** edo **Haziera** bezalako proiektuei jarraipena emateko ere balio dute, datozen hilabeteetan jarduerak programatzen jarraituko baitute. ON EKINEK, adibidez, Cristina Enea Fundazioak eta Donostiako Udalak tokiko elikadura kontziente eta eraldatzailea sustatzeko abian jarritako kanpainak, artisau kontserba begetalak egiteko tailer bat eskainiko du (irailaren 18an) bai eta bisita gidatu bat ere Donostiako portura. Bertan, Isturiz I baxurako itsasontzian igo eta bidaiatuko dugu, Donostiako Karmengo Ama Kofradiako baxurako arrantzontzi profesionalen (uztailaren 6an). Irteera bat ere programatu da bidaiari-itsasontzi batean Donostiako badian zehar. Bertan, inguruneaz gozatu eta baxurako itsasontzi bat ikusi ahal izango dugu, arrantzan tretza-arrantza

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:





**cristina
enea**
FUNDAZIOA

teknikaren bidez arrantzatzen (irailaren 14an). Haziera ekimenak, bestalde, Hazilanaren saio bat antolatzen du irailaren 21ean, eta tokiko tomate barietateekin lotutako beste saio bat irailaren 24an.

Ulia eta Urgull

Urgull mendiko Natur Txokoa egunero egongo da zabalik, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, haurrentzako eskulan eta tailer ludiko eta didaktikoekin, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, eta jarduera bereziekin astearte eta asteazkenetan, 17:00etan.

Bestalde, Ulia Interpretazio Zentroa udan ere egongo da zabalik, asteartetik igandera, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Urte osoan bisita daitekeen erakusketa egonkorraz gain, udako hegazti nagusiak diren enara eta sorbeltzei eskainitako **Hiru moskiteroak** izeneko argazki erakusketa inauguratzen da. Udan ere ohiko basoko bainua egiteko aukera egongo da, irailaren 7an, eta egunero Interpretazio Zentrora hurbiltzen diren pertsonak mendian zehar jarduera autogidatuak egin ahal izango dituzte, hala nola orientazio-zirkuituak, bai eta gidatu gabeko eskulanak ere.

Izen-emateak

Jarduera gehienetarako izen-emateak gaur, ekainak 21, ireki dira www.cristinaenea.eus webgunean. Sarrerak erosteko itxaron beharreko jarduera bakarrak Cristina Eneako abuztu eta iraileko bisita antzeztuak izango dira. Abuztuko saioak 24an eta 25ean izango dira, eta sarrerak abuztuaren 5etik aurrera erosi ahal izango dira (10:00 am). Iraileko saioetarako (irailaren 28-29) sarrerak eskuratzeko epea irailaren 5ean irekiko da.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babese iraunkorra | Colaborador permanente:





Agenda de verano 2024 de Fundación Cristina Enea

Ayer, jueves 20 de junio, dio comienzo el verano en el hemisferio norte y desde Fundación Cristina Enea hoy se presenta una agenda de actividades para los próximos 3 meses repleta de iniciativas y proyectos. Desde proyecciones de cine al aire libre hasta visitas teatralizadas en Cristina Enea, pasando por una amplia programación infantil en el Natur Txoko de Urgull y exposiciones y actividades autoguiadas en el Centro de Interpretación de Ulía, entre otras actividades.

Donostia / San Sebastián, 21 de junio de 2024.- Llegan los días más largos y cálidos del año y con ellos Fundación Cristina Enea presenta la Agenda de Actividades del Verano 2024, ya disponible en www.cristinaenea.eus (hoy publicamos una agenda reducida, ya que durante los próximos días se presentarán en rueda de prensa o a través de nota de prensa la programación del ciclo de cine de verano al aire libre y la programación completa del Natur Txoko de Urgull). Medio centenar de actividades a través de las cuales se invita a la ciudadanía a acercarse a la naturaleza y la sostenibilidad desde diferentes ámbitos. Además de las iniciativas habituales, como las exposiciones o las conferencias, en verano volvemos a abrir el Natur Txoko de Urgull para ofrecer actividades infantiles didácticas y lúdicas. Pero la iniciativa que más se vincula a esta época del año es, sin duda, el ciclo de **cine al aire libre**, que este año programará 4 proyecciones en cuatro parques de la ciudad (todos los detalles el próximo 25 de junio en rueda de prensa).

La agenda arranca con la inauguración el 27 de junio de la exposición **Semillas voladoras**, de la artista María Cueto. Una muestra que ofrece una inmersión profunda en el universo creativo de Cueto, cuyo trabajo se centra en el uso de elementos vegetales, especialmente semillas, como fuente de inspiración y expresión artística. Esta muestra, además, contará con una serie de actividades paralelas, como una mesa redonda, visitas guiadas y actuaciones artístico-musicales. María Cueto cuenta con una amplia y dilatada experiencia en el ámbito artístico y con esta exposición que trae al Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián nos invita a contemplar la belleza y la fragilidad de nuestro entorno y a reflexionar sobre el papel que jugamos en su preservación.

Visitas teatralizadas de la duquesa de Mandas

Los últimos fines de semana de los meses de verano volverán a ser escenario de las **visitas teatralizadas de Cristina Enea**. Una iniciativa que ha gozado de una inmejorable aceptación entre la ciudadanía en sus primeras sesiones, y que ahora vuelven con una programación doble: habrá dos sesiones el último sábado y otras dos el último domingo de cada mes. Estas representaciones sirven para conocer mejor la figura de la que fuera duquesa de Mandas, Cristina Brunetti Gayoso de los Cobos, personaje interpretado por la actriz Josune Gorostegi.

Los meses de verano servirán también para dar continuidad a proyectos como **ON EKIN** o **Haziera**, que seguirán programando actividades durante los próximos meses. ON EKIN, por ejemplo, la campaña puesta en marcha entre Fundación Cristina Enea y el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián para promover una alimentación local,

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:





consciente y transformadora, ofrecerá un taller de elaboración artesanal de conservas vegetales (18 de septiembre), una visita guiada al puerto de San Sebastián donde subiremos y viajaremos a bordo del barco de bajura Isturiz I, barco profesional de pesca de bajura de la Cofradía Virgen del Carmen de Donostia (6 de julio) y una salida en un barco de pasajeros por la bahía donostiarra, donde disfrutaremos del entorno y podremos ver en directo un barco de bajura pescando mediante palangre, técnica artesanal de pesca (14 de septiembre). La iniciativa Haziera, por su parte, organiza una sesión de Hazilana el 21 de septiembre y otra relacionada con variedades locales de tomate el 24 de septiembre.

Ulía y Urgull

El Natur Txoko del monte Urgull volverá a estar abierto todos los días, del 1 de julio al 31 de agosto, con manualidades y talleres lúdicos y didácticos infantiles, con horario de 11:00 a 14:00 y de 16:00 a 19:00, y con actividades especiales los martes y miércoles a las 17:00 h.

Por su parte, el Centro de Interpretación de Ulía también permanecerá abierto durante los meses de verano de martes a domingo de 11:00 a 14:00 y de 16:00 a 19:00 h. Además de la exposición permanente que se puede visitar todo el año, en verano se inaugura la muestra fotográfica **Los tres mosquiteros**, dedicada a las aves de verano por excelencia: la golondrina, el vencejo y el avión. El verano también contará con su baño de bosque habitual, tendrá lugar el 7 de septiembre, y diariamente, las personas que se acerquen al Centro de Interpretación, podrán realizar actividades autoguiadas por el monte, como los circuitos de orientación, o manualidades no guiadas.

Inscripciones

Las inscripciones para la mayoría de las actividades se abrirán mañana **viernes 21 de junio**, en www.cristinaenea.eus. Las únicas actividades para las que se deberá esperar para adquirir entradas serán las visitas teatralizadas de Cristina Enea de los meses de agosto y septiembre. Las visitas de agosto serán los días 24 y 25, y las entradas podrán adquirirse a partir del 5 de agosto (10:00 am). El plazo para adquirir las entradas de las sesiones de septiembre (28-29 de septiembre) se abrirá el 5 de septiembre.